

## MATRIKULA EPEA ZABALIK ASTIGARRAGAKO AEK EUSKALTEGIAN.

Dagoeneko zabalik dago Astigarragako AEK euskaltegiko matrikula epea. Aurtengo ikasturtean (06-07) lan egiteko hiru modu berezitu proposatzen ditu euskaltegiak. Taldean, autoikaskuntza (tutorearekin) eta ON-LINE (internet bidez). Ahalik eta jende gehienaren beharretara egokitzea eta ahal den zerbitzurik osatuena eskaintzea da asmoa.

Informazio gehiago nahi izanez gero kultur etxeko lehen solairura jo (astelehentik ostiralera, goizeko 09.00etatik 14.00etara eta arratsaldeko 16.00etatik 20.00etara). Bestela 943557354 telefonora deitu edo astigarraga@aeknet.net helbidera mezua bidali. Matrikula epea irailaren 29 artekoa izango da. Ikastaro guztiek Udaren dirulaguntza jasoko dute.

P2-113

# Kizkiaren sagardo lehiaketako finala hilaren 27an jokatu da Astigarragan

## ASTEAZKENEAN IZANGO DA AZKEN KANPORAKETA

2000. urtean sortu zuten txapelketa txotx garaian bisitatutako sagardotegi beren esker ona agertzeko

### AINARA HERNANDO

ASTIGARRAGA. Sagardoa maite duten bederatzita lagunek osatzen dute Astigarragako Kizkia Taldea. Sagarrak lurretik biltzeko erremintaren izena daraman taldea 1998an sortu zen Lizeaga sagardotegian, lagun arteko bazkari batean. Sagardozaletasunak, edariari buruz gauza berriak ikasi nahiak eta sortutako lagun arteko giroak bultzatu zituen elkartzera eta beren sagardo lehiaketaren laugarren edizioan murgilduta dabilta orain.

Txotx garaian, asteazken eguerdiro sagardotegi ezberdinetan biltzen dira duela zortzi urte. 2000. urtean, beren arteko zaletasunari eta elkarrekin egindako bideari sendotasuna emateko eratu ziren Kizkia bezala. Joxe Mari Latasa Garaikoetxea Xarpa izendatu zuten taldeko lehendakari.

Gauzak horrela, txotx garaian bisitatutako sagardotegi guztien lana estimatzeko, sagardozaletasuna pizteko eta beren esker ona agertzeko, txapelketa propio bat antolatzea erabaki zuten. 2000ko irailan egin zen lehena eta, irabazlearentzat, taldearen ikur modura, kizkia eta txapela finkatu zituzten sarritzat.

Irailera iritsita, aurtien ere martxan dago txapelketa. Guztira 20 sagardotegik hartzen dute parte, taldeak txotx garaian bisitatu dituenak. Aurtengo irabazlea hauen artekoa izango da: Sarasola (Asteasu), Isastegi (Tolosa), Zabala (Aduña), Gaztañaga (Andoain), Herna-



Kizkia Taldeko kideak joan den urteko txapelketako finalaren ostean. ARGAZKIA: UTZITAKOIA

**Hogei sagardotegik hartzen dute parte eta Andoaingo Gaztañaga izan zen joan den urteko irabazlea**

niko Otxoenea, Elorrabi eta Altzueña. Astigarragako Etxeberria, Larrarte, Buenaventura, Petritegi, Rezola, Alorrenea eta Lizeaga; Barkaiztegi (Donostia), Astiazaran (Zubieta), Oartzungo Ordo-Zelai eta Balero, eta Urnietako Eula eta Altuna.

Hiru kanporaketa izaten ditu lehiaketak eta asteazken eguerdi honetan jokatu da azkena Astigarragako Gure Izarra elkartearen. Edari guztiek aukera bera izan dezaten, kanporaketa guztiak eta baita finala ere janari berdinarekin egiten dituzte eta, sagardoak ere tenperatura berdinean mahairtzen saiatzen dira.

Puntuaketaren zenbaketa eramaten duen taldekideak izan ezik (honek ez du parte hartzen), inork ez daki aldi bakoitzean zein sagardo edaten duen, ez eta finalera zein sagardotegi pasako diren ere.

Baso bakoitzari gehienez hamar puntu eman ahal dizkio taldekide bakoitzak eta horiek honela banatzen dira: hiru puntu gehienez basoan hautsitako sagardoari, bi darion usainari eta bost zapoeari.

Joan den urteko irabazlea Andoaingo Gaztañaga sagardotegia izan zen. Aurtengoa zein izango den irailaren 27ko finalean jakingo da.